

















## Merkatari/ostalari hori:

Gutun hau bidaltzen dizugu UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen eta zure udalaren izenean. Lehenik eta behin, indarra helarazi nahi dizugu aste gogor hauen ondoren zure negozioaren martxari heltzeko. Establezimendu txikiek ematen diote bizitza udalerriei, eta herri-bizimodua posible izan dadin, zuen presentzia beharrezkoa da. Horretan sinisten dugu, eta egoera honi aurrera egiteko, gure laguntza eskaini nahi dizuegu.

Apurka-apurka hasiko zarete ateak irekitzen eta bezeroak jasotzen. Dena den, arau eta neurri berrietara egokitu beharko duzue, zuek zein bezeroek. **Hori dela eta, arau horien berri ematerakoan, euskara kontuan izateko laguntza eskaini nahi dizugu.** Krisi garaietan, ahulenak eta txikienak dira kalte gehien jasaten dutenak. Merkataritzako sektorean ondo asko sumatu duzue hori. Gauza bera gertatzen zaio euskarari, lehentasuna hizkuntza handiei eman zaie pandemia egoera honetan, kontuan izan gabe euskarak lehendik ere bultzada behar zuela bizirik irauteko.

**Zure udalerria udalerri euskalduna da, herritarren gehiengoa euskaraz bizi da, bertan mantentzen dugu bizirik gure hizkuntza. Orain inoiz baino gehiago herritarrei gertutasuna erakustea dagokigu, gure hizkuntza eta gure bizilagunak zainduz eta mimatuz. Horregatik, zerrenda honetan bildu dizkizugu COVID19 pandemiak eraginda hartu beharreko neurrien inguruko oharrak, zeuk begiratu eta inprima ditzazun: https://labur.eus/covid19kartelak. Esteka hori bisitatzeko arazoak izanez gero, 943-81 66 99 telefono zenbakira deitu, eta bertan lagunduko dizugu.**

Horrez gain, gogorarazi nahi dizugu urte osoan bezalaxe, merkataritza eta ostalaritzako itzulpen, kartel eta menuak ere egiten ditugula. Aurtengoan, gainera, badirudi hurbileko turismoa izango dela nagusi. Aukera paregabea da euskara lehen lerroan jartzeko eta bisitariak etxean bezala sentiarazteko. Eskaera horiek egiteko, 943-81 66 99 zenbakira deitu edo *administrazioa@uema.eus* helbide elektronikora idatz dezakezu. Eskuorri honetan dituzu hainbat eredu.

Gogoratu, ezohiko egoera honetan beharrezkoa da gure hizkuntza lehenestea. Horretarako, ondoan izango gaituzu, laguntzeko prest. Esan gabe doa, zerbitzu honek ez du gasturik merkatarientzat eta ostalarientzat.

Besarkada bat,

Iraitz Lazkano Garitaonandia, UEMAko lehendakaria

www.uema.eus
UEMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Donibane enparantza 1, 1a
48380 AULESTI
Bizkaia
946 279 195

Alaide kalea 2
20180 OIARTZUN
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza (6. bulegoa)
20730 AZPEITIA
Gipuzkoa
943 816 699



















































# Euskara, gure balio erantsia

Merkataritzan, ostalaritzan eta oro har zerbitzu sektorean euskara naturaltasunez erabiltzeko baliabide ugari eskaintzen ditu UEMAk, doan.